

PUBLIZITATE A ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA

1. MAILA

Irakasgai komunak honako graduekin:
Kazetaritzako Gradua
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua

- Berrien Idazkera Prentsan (1.LH)
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea) (1.LH)
- Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea) (1.LH)
- Ikus-entzunezko Hizkuntza (1.LH)
- Ingurune Ekonomikoaren Analisia (1.LH)
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Institutuzionala (1.LH)
- Gaur Egungo Munduaren Historia (2.LH)
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak (2.LH)
- Informazio Generoak (2.LH)
- Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak (2.LH)
- Komunikazioari Aplikatutako Estatistika (2.LH)

2. MAILA

Irakasgai komunak honako graduekin:
Kazetaritzako Gradua
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua

Irakasgai komunak
Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduarekin

Publizitateko eta Harreman Publikoetako
Graduko irakasgai espezifikoak

- Nazioarteko Harremanak (1.LH)
- Ziberkazetaritzako Idazkera (1.LH)
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa (2.LH)
- Informazioaren Zuzenbidea (2.LH)
- Komunikazioko Ikerketa Metodoak (2.LH)
- Pentsamendu Politikoaren Historia (2.LH)
- Sormena (1.LH)
- Marketina: Kontzeptuak, Estrategiak eta Teknikak (1.LH)
- Publizitate eta Harreman Publikoetako Sistemak eta Prozesuak (1.LH)
- Publizitatearen Historia (2.LH)

3. MAILA

DERRIGORREZKOAK

- Diseinu Grafikoa (1.LH)
- Hedabideen Plangintza I (1.LH)
- Harreman Publikoen Teoria (1.LH)
- Merkatuen Ikerketa (2.LH)
- Hedabideen Plangintza II (2.LH)

Mugikortasun programak:
ERASMUS+, EHU-AL, BN eta SICUE

Borondatzeko praktikak: hautazko 6 kredituekin baliozkotzeko aukera

Beste jarduera batzuetatik kreditu onarpena: gehienez hautazko 6 kreditu

HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 5)

- Komunikazioa, Generoa eta Masa Kultura Mundu Garaikidean (2.LH)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea) (2.LH)

KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ZUZENDARITZA AIPAMENA

- Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan (1.LH)
- Bozeramaileen Prestakuntza (2.LH)
- Harreman Publikoen Teknikak (2.LH)

PUBLIZITATEAREN ARLOKO MULTIMEDIA ERREALIZAZIOA AIPAMENA

- Sormena II (1.LH)
- Diseinu Grafiko Aplikatua (2.LH)
- Ikus-Entzunezko Narratiba (2.LH)

- Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1.LH)
- Komunikazio Bulegoak (2.LH)

- Arte Zuzendaritza (1.LH)
- Publizitateko Multimedia Errealizazioa (1.LH)

- Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa (1.LH)
- Ikus-entzunezko Sistema (1.LH)
- Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak (euskarako taldea) (1.LH)
- Kultura Marketina (2.LH)
- Publizitatearen Etika (2.LH)

HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 3)

4. MAILA

DERRIGORREZKOAK

- Publizitatearen Eraginkortasuna (1.LH)
- Marketin Estrategikoa eta Interaktiboa (1.LH)
- Kontsumoaren Psikosoziologia eta Marketina (1.LH)
- Komunikazio Estrategikoa eta Operazionala (2.LH)
- Publizitatearen Zuzenbidea (2.LH)

Gradu Amaierako Lana

Plangintza

Lehenengo maila:

Kazetaritzako Graduan eta Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan eskaintzen den berbera da. Helburua da prestakuntza sendoa bermatzea Komunikazioaren alorrean.

Bigarren maila:

Bigarren mailako hamar irakasgaietatik sei Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan eskaintzen direnak dira eta lau Kazetaritzako Graduan.

Hirugarren eta laugarren maila:

Bi maila hauek ikasleen prestakuntza espezifikora daude zuzenduta eta nahitaezko irakasgaiez gain, bost maila bakoitzean, hautazko irakasgai asko eskaintzen dira. Ikasleek zortzi hautazko egin behar dituzte, bost hirugarren mailan eta hiru laugarren mailan. Graduetan, hautazko irakasgaiak bi motatan aurkezten dira:

- a) Aipamenak: gai jakin bati lotuta dauden hautazko bost irakasgairen multzo itxia da. Bi aipamen daude Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan: Publizitatearen Arloko Multimedia Errealizazio aipamena eta Komunikazioaren Arloko Zuzendaritza aipamena. Azken hau, Kazetaritza graduan eskaintzen den aipamen bera da.
- b) Aukeraketa irekia: ikasleak hautazko hamabi irakasgai aukeratu ditzake, bere lehentasunen arabera. Aukeraketa irekian aipamenetan bilduta dauden irakasgaiak zein modu autonomoan aurkezten diren irakasgaiak aukeratu daitezke.

Dena den, bi bide daude gehienez ere hautazko sei kreditu baliozkotzeko:

- 1) Borondatezko praktiken programa: hirugarren eta laugarren mailan enpresetan borondatezko praktikak egiteko aukera daukate ikasleek. Fakultateak 500 leku baino gehiago eskaintzen ditu praktikak egiteko, enpresa eta erakunde publiko zein pribatuetan. Praktikak tutore baten ardurapean egiten dira, bateragarriak dira ikasketekin, eta hiru txanda hauetako batean egin daitezke: lehen lauhilekoan, bigarrenean edo udan. Gutxienez 130 ordu egiten dira eta gehienez 450. Informazio guztia: <http://www.ehu.eus/eu/web/gkz-csc/praktikak-bekak>
- 2) Kredituak aitortzea beste jarduera batzuen bitartez, ikusi Akademia Araudiak (<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/akademia-araudiak>) eta Gestio Arautegia (<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/graduiko-gestiorako-arautegia>).

Beste programa interesgarri batzuk:

3) Mugikortasun programak:

Fakultateak 60 hitzarmen baino gehiago ditu eginda atzerriko unibertsitateekin eta ikasleak trukatzeko ehun plaza eskaintzen dizkie hirugarren eta laugarren mailako ikasleei programa hauen bitartez: "Sicue/Seneka" (Espainia), "Sokrates/Erasmus" (Europa), "UPV/EHU-AL" (Latinoamerika) eta "Beste norako batzuk" (Estatu Batuak, Kanada eta Asia). Informazio guztia: <http://www.ehu.eus/eu/web/gkz-csc/mugikortasun-programak>

Gradu amaierako lana:

Ikerlan bat egin behar da komunikazioaren eta kazetaritza informazioaren alorrean eta jendaurrean defendatu.